TO
RRE
KUA

# Ekonomia sozial eraldatzailearen eta Teknologia Libreen Atea

TEKS.

Babesleak:

ERRENTERIA
UDALA

# Aurkezpena

TORREKUA Errenteriako alde zaharraren sarreran dagoen dorretxea da eta 500 urte baino gehiagoko historia du. TORREKUA arkitektura zibilaren tipologia baten parte da, eta, Euskal Autonomia Erkidegoan, historikoki, mota honetako eraikinek, bizitegi-erabilera izan dute, batetik, herriko pertsona edo familia garrantzitsuentzat, eta, bestetik, babeslekua eta elementu estrategikoa. Horregatik, eraikina leku pribilegiatu batean dago kokatuta, Errenteriako harresi zaharraren sarreran, Nafarroako atean edo Sanjuangoa deiturikoan.



Arkitektura-mota honetako beste ezaugarri bat da TORREKUA bezalako dorretxeak historikoki erlazionatu direla pertsona-talde batek kokaleku estrategiko bat eratu nahi izatearekin. Pertsona talde horiek, ia beti, interes komunei lotuta egon izan dira, eta jarduera ekonomikoa, normalean, artisautzan eta merkataritzan oinaritzen zen.

2024ko udaberri honetan TORREKUAk etapa berri bat ireki du. Errenteriako Udalak TEKS Elkartearekin duen lankidetza eta laguntzari esker, TORREKUAk ziklo berri bati ekin dio. TEKS elkarteak berak dinamizatu eta koordinatutako du bide berri hau, Ekonomia Sozial Eraldatzailearen eta Teknologia Libreen arloen lanketarekin.

# Aurkezpena



## Misioa

Hemendik aurrera, herritarren eskura dagoen proiektua izango da. Herritarretatik eta herritarrentzat sortutako gunea, helburu oso argiak dituena:

- Behar berriei eta erronka teknologikoei modu komunitarioan erantzun bat emateko ingurunea sortu eta sustatzea.
- Herritarrak Torrekuara hurbiltzera, baita ekonomia sozialean eta teknologia libreetan lan egiten duten eskualdeko eta inguruko beste eragile, proiektu eta erakundeak ere.
- Aniztasuna egon dadila eta zabala izan dadila, eragile desberdinen elkarlanaren eta sustapenaren emaitza.

## Ikuspegia

TORREKUA erreferentzia-gune bihurtu nahi dugu:

Digitalizazioari eta gizartearen erronkei buruzko ikerketan, ikuspegi sozial eta eraldatzailearekin.

Elkarlaneko teknologia libreen garapenean

Gizarte-ekonomiako proiektuak sustatzean

Lotutako sormen espazio komunitario eta interkooperatibo bat izateko helburuarekin sortutako laborategia bat

# Gure konpromisoak

### Ekonomia Sozial Eraldatzailea

Interes ekonomikoen gainetik bizitzak erdian jartzea.

### Teknologia libreak

Teknologia libreak erabili jendarte librea izateko.

### Lekutotasuna

Tokian tokiko beharrei erantzuteko tresnen garapena.

### Sormena eta ezagutza

Sormena sustatu eta ezagutza partekatua sortzea.

### Elkarlana

Behar komunei erantzun komunak bilatzea.

# Gure helburuak

- Teknologia libre eta ekonomia sozial eraldatzailea garatzeko formazio eta zabalpen jarduerak antolatu.
- Teknologia libre eta ekonomia sozial eraldatzailearen inguruko, ezagutza zabaltzeko edukiak sortu eta argitaratu.
- Teknologia libreen garapenerako zerbitzu aurreratu kolektiboak eskaini.
- Teknologiaren erabilera osasuntsu eta soziala sustatu, bereziki oligopolien dependentziak kanpo, eta teknologiak sortzen dituen arrakal sozialei erreparatuz.

# Gure helburuak

- Tresna libreak eta ezagutza komuna metatzeko gune irekiak sortu.
- Datuen azpiegitura etiko, libre eta kooperatiboak eskaini.
- Teknologiaren garape eta erabilerarako aholkularitza eraldatzaile eta etiko zerbitzuak eskaini.
- Teknologiaren erabilera librean oinarritutako proiektu sozioekonomikoak sortu eta sustatu, horretarako Ekonomia Sozial eraldatzailea eta kooperatibismoa oinarri harturik.
- Teknologia libreen garapen komunitateak sortu, eta erabiltzen diren tresnen komunitateetan parte hartu.



- Teknologia libreetan oinarritutako proiektu kolektiboak garatu, bai software libreko tresnak erabiliz, bai hardware librea erabiliz.
- Teknologia libre eta ekonomia sozial eraldatzailearen sustapenarako guneak sortu eta kudeatu.
- Ekonomia sozial eraldatzaileko interkooperazio eta lurralde sareetan parte hartu.

# Aurkibidea


| | |
|---|---|
| Nor gara | 7 |
| Torrekua proiektua | 10 |
| Espazioak & Zerbitzuak | 14 |
| Komunitatea & Zerbitzuak | 18 |
| Ekintzak 2024 | 27 |
| Datuak 2024 | 51 |
| Gehiago jakiteko | 54 |

# Nor gara

TEKS elkartea arduratzen da, udaberri honetatik aurrera, TORREKUAren gunea koordinatzeaz eta dinamizatzeaz. Baina, batez ere, eragileen eta parte-hartzaileen arteko lankidetza eta sinergiak eta, hiru hilean behin edo urtean behin egiten diren jardueren eta ekitaldien edukia eta plangintza egiteaz.

Baina, zer da TEKS?

TEKS irabazi-asmorik gabeko elkarte gisa sortu zen 2021ean, eta Teknologia Libreei eta Ekonomia Sozial Eraldatzaileari lotutako interkooperazio-sarea izan nahi du.

Interneten agerpenarekin eta teknologien sektorearen bilakaerarekin, azpiegiturarekin, hardwarearekin, softwarearekin eta dibulgazio-edukiarekin lotutako guztia —telekomunikazioen, Interneten edo teknologien sektoreak nola funtzionatzen duen eta nola funtzionatu behar duen, nola erabili behar ditugun edo haiekin nola erlazionatu behar dugun— oso lotuta eta markatuta dago korporazio multinazional handiek ziurtatu nahi izan dituzten merkataritzako kontakizun, balio eta lehentasunen bidez.

Teknologia digitalen eta telekomunikazioen sektorean nagusi den esparru/kontakizun horretan, pentsatzeko, sortzeko, gauzatzeko, erabiltzeko edo teknologiekin erlazionatzeko modu horren alternatiba paralelo iraunkorrago eta libreago ugari agertu dira, existitzen dira eta funtzionatzen dute; “Teknologia Libreak” deitzen diegu horiei.

Eredu iraunkorrago eta kolaboratiboago baterako aldaketa sustatzeko beharretik sortu zen, eta, batez ere, TEKS sortu aurretik teknologia libreei lotuta zeuden eragile parte-hartzaileen arteko lankidetza-gune bat sortzeko beharretik, eta erakunde edo kooperatiba horiek batu eta gauza komunetarako alternatiba bat biltzera erakartzeko beharretik.

# Nor gara

TEKS sortzearen helburua da teknologia libreekin eta ekonomia sozial eraldatzailearekin lotutako proiektuak, prestakuntzak, tresnak eta eduki didaktikoak sortzea, sustatzea eta zabaltzea, teknologiaren arloan gizarte burujabeagoa lortzeko.

TEKSen, Teknologia Libreak, behar pertsonaletara eta/edo profesionaletara egokitzeko, aldatzeko, haiekin modu librean erlazionatzeko, hobetzeko edo askatzeko aukera dugun baliabideak eta tresnak sortzea dela uste dugu.




TEKSen Teknologia Libreen helburuekin bat egiten dugu. Hau da, pertsona, kolektibo, komunitate edo enpresa bakoitzari irtenbide edo funtzionaltasun egokia aurkitzearena. Teknologia Libreez ari gara, egoera bakoitzaren berezitasunetara egokitzen direlako.

Libreak, nazioarteko korporazio handien ikuspegi pribatiboaren mende ez daudelako; libreak, beren erabilera askatzeko aukera ematen dutelako, akatsak ez errepikatzeko eta hobetu ahal izateko; libreak, funtzionamenduari buruzko informazioa eskuratzeko aukera izateko, ulertu ahal izateko; eta libreak, erabili nahi dituztenei partekatu ahal izateko, aldatzeko, egokitzeko, eta sortze prozesuan zerotik hasi beharrik ez izateko.

# Nor gara

Zentzu horretan, TEKSek, entitate eta kooperatiba teknologikoen elkarte gisa, elkartetik harago doa. TEKS komunitatea ere bada, lankidetzarako espazio eta plataforma bat eta aldizkako eta unean uneko topaketak, proiektuak eta ekimenak sortzeko eta sustatzeko leku bat, beste erakunde, kooperatiba, erakunde publiko edo prestakuntza-erakunde batzuekin batera, teknologia leku gizatiarrago, hurbilago eta irisgarriago bihurtu nahi dutenak, eta eredu nagusiari ikuspegi kritikoa ematen diotenak. Azken finean, Teknologia Libreen eta Ekonomia Sozial Eraldatzailearen inguruan komunitatea eta sinergiak sortuko dituen gunea.

Bide horretan, TEKS elkartea Errenterian kokatua dago, eta lurraldetasuna bertan eta Oarsoaldea eskualdean kokatzen du, baina eragin eremua Euskal Herrian zabalduz. Horregatik Olatukoop Ekonomia Sozial Eraldatzailea sustatzeko elkartearen bazkide da eta interkooperazioa lantzen du modu intersektorialean, sare guztian Teknologia Libreak sustatzearen truke.



# Torrekua proiektua

TORREKUA Euskal Herriko Teknologia Libreei eta Ekonomia Sozial Eraldatzaileari lotutako espazio kooperatibo/interkooperazio eta komunitario bat da.

TORREKUA, teknologiekin dugun ikuspegia eta harremana partekatzeko, sortzeko, trebatzeko, esperimentatzeko eta eraldatzeko lekua da, horretarako, ikuspegi sozial eta komunitario bat erabiliz.

Partaidetzara, interkooperaziora eta komunitatera irekitako espazio bat. Lurraldeari lotutako eta Ikuspegi sozial eta eraldatzailea duten proiektuei laguntzeko espazioa. Elkarlanerako espazioa eta komunitatearentzako zerbitzuak eskaintzen dituen eraikina da, eta denontzat zuzendutako trebakuntza-, hitzaldi- eta tailer-programa dituena.

Eraikina Errenterian dago, Gipuzkoan, eta lau solairu ditu, bertan ondorengo gaiekin lotutako proiektuak, hitzaldiak, formakuntzak, tailerrak eta jarduerak egiteko:

- Burujabetza Teknologikoa eta Teknologia Libreak sustatu.
- Euskal Herriko Ekonomia Sozial Eraldatzailea lantzeko Interkooperazio Sarea bultzatu.
- Gobernantza eredu publiko-komunitario-kooperatiboa bideratu.
- Lanerako gune partekatu bat kudeatzearen alde egitea.
- Eragile parte-hartzaile ugari dituen eta elkarri eragiten dioten komunitatea indartzea.



# Torrekua proiektua

TORREKUA izaera komunitarioa duen gunea da, eta bertan hainbat lan-ildo eta estrategia gauzatzen dira. Hona hemen lan-ildo eta estrategia horiek:

- Ekonomia Sozialeko proiektuen difusioa eta promozioa.
- Elkarlaneko guneak dinamizatzea.
- Teknologia digitalen garapena.
- Hitzaldiak eta formakuntzak.
- Tailer teknikoak.
- Erakusketak eta informazioa.
- Bilkurak.
- Ikerketa akademikoa



Torrekua eraikinaren eta proiektuaren ardura hartuko duen elkartea TEKS burujabetza teknologikoa sustatzeko elkartea izango da.

Torrekua eraikina eta bertan garatzen diren proiektuak, «Torrekua» deituko duguna marka moduan, Errenteria eta Oarsoaldea eskualdeko sozioekonomiaren dinamizazio eta eraldaketarako tresna izango dira. Horretarako bertan kokatuko diren proiektu eta lan-ildoak izango dira ardatz, hauetan parte hartzen duten eragile ezberdinen elkarlanerako espazio izango delarik Torrekua bera. Proiektuak elementu hauek izango ditu autoeratutako garapenerako:

- Ekonomia Sozialeko proiektuen difusioa eta promozioa.
- Elkarlaneko guneak dinamizatzea.
- Teknologia digitalen garapena.
- Hitzaldiak eta formakuntzak.

# Torrekua proiektua

- Tailer teknikoak.
- Erakusketak eta informazioa.
- Bilkurak.
- Ikerketa akademikoa

Torrekua eraikinaren eta proiektuaren ardura hartuko duen elkartea TEKS burujabetza teknologikoa sustatzeko elkartea izango da.

Torrekua eraikina eta bertan garatzen diren proiektuak, «Torrekua» deituko duguna marka moduan, Errenteria eta Oarsoaldea eskualdeko sozioekonomiaren dinamizazio eta eraldaketarako tresna izango dira. Horretarako bertan kokatuko diren proiektu eta lan-ildoak izango dira ardatz, hauetan parte hartzen duten eragile ezberdinen elkarlanerako espazio izango delarik Torrekua bera. Proiektuak elementu hauek izango ditu autoeratutako garapenerako:

- Torrekua eraikina.
- Torrekua eraldaketarako plangintza.
- Aurrekontu propioa.
- Gobernantza eredu publiko-komunitario-kooperatiboa.
- Eraikinaren kudeaketarako eta proiektuen dinamizaziorako koordinazio taldea edo pertsona.
- Harreman mapa, eta interkooperazio estrategia.
- Lanerako eta komunikaziorako azpiegitura eta tresneria digitala.
- TEKS Elkartearen garapenerako espazioa.

# Torrekua proiektua

Torrekuak herritarren eskura egongo den proiektua izan nahi du, baina baita eskualdeko eta ekonomia soziala eta teknologia libreetan lan egiten duten inguruneko beste hainbat eragile, proiektu edota erakunde ere. Eraikinaren izaera ez da bakarra izango, hori ez da asmoa. Anitza eta zabala izango da, eragile anitzen elkarlanaren eta sustapenaren emaitza.

Torrekua erreferentziazko gune bihurtu nahi dugu; elkarlanean oinarritutako teknologia libreen garapenean, ekonomia sozial eta kooperatiboko proiektuen sustapenean, eta digitalizazioa eta jendartearen erronken inguruko ikuspegi sozial eta eraldatzaileko ikerketan. Hiru ardatzak uztartuz, nodo erreferentzial bihurtu nahi dugu Torrekua Errenteriako herritarrentzat, eskualdeko eragiletza sozioekonomikoan, eta Euskal Herrian eta mundu mailan ekonomia soziala eta teknologia burujanetza lantzen dituzten sare eta eremuetan. Torrekua sare komunitario izaera edukiko duen espazioa izango da, horregatik, bertan, hainbat lan ildo eta estrategia eramango dira aurrera, jarraian azalduko ditugunak.:

- Ekonomia Sozialeko proiektuen sustapena eta saretzea
- Lanerako elkarlan espazioen dinamizazioa
- Teknologia digitalen garapena
- Hitzaldi eta formazioak
- Tailer teknikoak
- Erakusketak egin eta informazioa ematea
- Batzarrak
- Ikerketa akademikoa



# Espazioak & Zerbitzuak

1 solairua

**Txill Gunea**

Ezin hobea bertan erlaxatzeko, irakurtzeko, atseden hartzeko edo modu lasaiagoan lan egiteko. Gainera, «Jolas Irekia» txoko txiki bat ere badu, txikienek ondo pasa dezaten.



1 solairua

**Torrekuako kantina**

Esertzeko, kafe bat hartzeko, gosaltzeko edo jateko guztiz hornitua. Gelditzeko eta pentsatzeari uzteko espazio bat. Hozkailuak, mikrouhin-labea, kafe-makina eta mahai-tresneria ditu.



1 solairua

**Laborategia**

Areto balioanitza, aldakorra eta elkarlanean aritzeko eta elkarreragiteko aukera ematen duena. Sorkuntzara bideratutako espazioa da, baita bertako tresnak eta azpiegitura mugikorrak erabiltzeko ere.



1 solairua

**Mahai beroak**

Mahai libre eta mugikorrak eskura, ikasi ahal izateko, modu informalagoan lan egiteko, zure lantaldearekin biltzeko edo buruan duzun proiektu sortzaileren bat garatu ahal izateko.



# Espazioak & Zerbitzuak

2 solairua

### Elkarlanerako espazioa

Azpiegitura, espazio eta bulego-material berdina partekatuz lan egiten duten kooperatibak, proiektuak edo pertsonak kokatzen dira bertan. Gune horretan sortzen eta garatzen dira ere TORREKUArekin lotutako proiektu berriak bultzatzeko harremanak.



2 solairua

### Balkoia

Kanpo-espazioa, deskonexio- eta distentsio-une bat izateko. Ezin hobea airea hartzeko, dei bat egiteko edo kafea hartzeko



2 solairua

### Stand up meeting

Mahai eta aulki altuekin atondua. Egokia da bideo-dei bat egiteko, bilera labur bat egiteko edo lan-eremuan sartu aurretik hitz egiteko.



# Espazioak & Zerbitzuak

3 solairua

### Ezagutzako espazioa

Eraikinaren azken solairua da. Hortzimugara begira dagoen itsasargia. Prestakuntza, tailerrak, hitzaldiak, batzarrak, topaketak eta Komunitatearen elkarlanerako espazioa.



3 solairua

### Stand up meeting

Mahai eta aulki altuekin atondua. Egokia da bideo-dei bat egiteko, bilera labur bat egiteko edo lan-eremuan sartu aurretik hitz egiteko.



3 solairua

### Bunker

Areto itxia, 10 pertsona inguruko edukierarekin, bilerak lasaitasun eta kontzentrazio handiagoarekin egiteko.



# Espazioak & Zerbitzuak

## Ekosistema digitala

**Torrekuak eskaintzen dituen baliabide digital libreak bere erabiltzaileentzat:**

# Komunitatea



# Komunitatea

## Barne komunitatea

Torrekua proiektua eta TEKS sarearen barruan dagoen pertsona, proiektu, enpresa eta eragileak dira. Torrekua eta TEKS sareekin harreman mota ezberdinak izango dituztenak.

### Erabiltzaile Puntuala

Teknologia libre edo/eta Ekonomia Sozial Eraldatzailearen ekosistemaren parte den pertsona, eragile edo proiektua izango da. Eraikinaren erabilera puntuala egingo duena: Bilerak, hitzaldiak, ekitaldiak, egoitza juridikoa, materialak gordetzeko espazioa

### Erabiltzaile Estazionala

Teknologia libre edo/eta Ekonomia Sozial Eraldatzailearen ekosistemaren lan egiten duen pertsona, eragile edo proiektua izango da. Eraikinaren erabilera osoa egingo duena denbora tarte finko batean. Lan egiteko espazioa, lan egiteko materiala, bilerak, materialak gordetzeko espazioa

### Erabiltzaile Egoilarra

Teknologia libre edo/eta Ekonomia Sozial Eraldatzailearen ekosistemaren lan egiten duen pertsona, eragile edo proiektua izango da. Eraikinaren erabilera osoa egingo duena denbora mugagabean. Lan egiteko espazioa, lan egiteko materiala, bilerak, materialak gordetzeko espazioa

# Komunitatea

## TEKS Bazkideak

Bazkideak: kooperatibak, elkarteak, erakunde publokoak edo autonomoak, TEKSi urteko ekarpena egiten diotenak. Gaur egun, TEKSek 3 bazkide aktibo ditu: ABAILA, TALAIOS eta BIKONET.




## Erabiltzaile Digitala

Torrekua eraikinean parte hartu ondoren barne eta kanpo komunitateen artean geratzen den eragilea. Komunitatea mantendu eta zaintzeko beharrezko profila. Agenda eta berriak jasoko dituena eta formakuntza eta bestelako zerbitzuetan parte hartuko duena erabiltzaile zein gidari bezala.

### Azala

**Ongi etorri Torrekuaren Wikira!**

### Zer da Torrekua

Torrekua ...

Torrekua eraikinaren izaera et historia Wikipedian: https://eu.wikipedia.org/wiki/Torrekua_dorretxea_(Errenteria)

### Torrekua Ekosistema Digitala

- Webgunea (WordPress) https://torrekua.eus
- Meta (Nextcloud) https://meta.torrekua.eus
- Txat (Zulip) https://txat.torrekua.eus
- Wiki (MediaWiki) https://wiki.torrekua.eus
- Ikasgela (Moodle) https://ikasgela.torrekua.eus
- Odoo https://odoo.torrekua.eus
- Login (Keycloak) https://login.torrekua.eus

# Komunitatea

## Kanpo komunitatea

Torrekuaren sustatzaile eta bezero/erabiltzaile izango diren pertsona, proiektu, eragile eta enpresak.

### Babes Sarea

Teknologia Libre edo Ekonomia Sozialaren arloetan hausnarketa bat egitearen aitzakiarekin espazioaren erabilera anitza egin dezaketen eragileak. Torrekua eta TEKS sareetan bereziki parte hartuko ez dutenak, baino sustatzaile/erabiltzaile forma izango dutenak.

### Sare Internazionala

Gure herrialdetik kanpo dauden antzeko ekimenen sarea. Erabiltzaile eta espazio fisiko zein digitala mundura zabaltzeko egitura.

### Oarsoaldeako biztanleria

Errenteria, Lezo, Pasaia eta Oiartzungo erabiltzaileak.
Formakuntza, hitzaldi, elkarretaratze... bezero/erabiltzaile izango den taldea.

# Komunitatea 2024



**ABAILA** telekomunikazioetako irabazi-asmorik gabeko kooperatiba bat da, Internet, Telefonia, Hosting eta Zibersegurtasun zerbitzuak eskaintzen dituena. Zumaian du egoitza, eta, orain, Torrekuan (Errenteria). 2018tik aurrera, telekomunikazio-sare independente baten bidez konexio-zerbitzuak eskaintzen dizkie operadore handiei, hurbilagoa eta jasangarriagoa baita. OLATUKOOP Euskal Herriko Ekonomia Sozial Eraldatzaileko hainbat kooperatiba biltzen dituen elkarteko kidea da.



Talaios Koop

**TALAIOS** Etorkizuneko teknologietara egokitutako aholkularitza eta garapen-zerbitzuak proiektuen eraldaketa prozesuen bidelaguntzekin uztartzen dituzte:

- Teknologia eta garapena: teknologia libreetan oinarritutako tresna digitalak aztertu, diseinatu eta garatu. Tresnak behar zehatzetara egokituz eta ahalduntze-prozesuetan laguntzeko garatuz.
- Formazioa eta ahalduntzea: sare-estrategietan, komunikazioan eta teknologia libreen erabileran prestakuntza.
- Estrategia eta Analisia: Sareen eta komunikazio-erlazioen bitartez egoera, egitura edo gaien analisiak. Ateratako ondorioekin sare-estrategiak diseinatu eta martxan jarri.
- Ekonomia eta Eraldaketa: Ekonomia Sozial Eraldatzailearen esparruan ekintzailetza eta enpresa-eredu berriak sortzen, saretzen eta hedatzen lagundu.
- Errenterian du egoitza, bulego propioan eta baita Torrekua gunean. Olatukoopeko kide dira ere, Euskal herrian Ekonomia Sozial Eraldatzatzaileko kooperatibak batzen dituen elkartea.

# Komunitatea 2024



**BIKONET**: Pertsonak konektatzen, gizakien arteko konexioak sortzen.

Gure helburua jendeak telekomunikazio enpresekin duen harremanari buelta ematea da, Internet, WiFi, mugikorra, sareak eta streaminga eskaintzeaz gain tratu duina emanez gure erabiltzaileei

2022an jaioa, behar guztiak asetzeko zerbitzuak ditugu, etxeko koneziotik hasi eta VPN bidez elkartu behar duten egoitza askodun enpresa arte, modu seguru eta eraginkorrean lan egin ahal izateko.

Software askea erabiltzen dugu gure sistemen segurtasuna eta egonkortasuna bermatzeko aukerarik hoberena dela uste dugulako, eta bere ideiak guztik errotut a daude Bikoneten.

**BATURA**: Elkarri laguntzen eta balore sozialekin bizi eta lan egin nahi dugun kolektiboak identifikatzen ditugu, elkarlanaren aldarri izango den mapa batean erakustaraziz.

Batura Euskal Herriko Ekonomia Sozial Erandatzailearen mapa da. Soziala, bizitza erdigunean jartzen duten eta lurraldearen arazoei irtenbideak eskaintzen dizkioten ekimenen mapa delako. Eraldatzailea, merkatu eta kapitalaren menpe dagoen mundu honen aurrean alternatiba sendo bat delako.

Ekonomia soziala herritarrengana gerturatzea dugu helburu, baina hau egin nahi dugun bidearen lehen pausua besterik ez da. Herritarren parte hartzetik jaio eta eraldaketa sozialera abiatzen den bidea da gurea.

# Komunitatea 2024

**Eusko Moneta**. Oarsoaldea eskualdean tokiko moneta baten sorrera aztertzeko egitasmoa da. Tokiko ekonomia bultzatuko duena, herritarren, eragile sozialen eta administrazioen arteko elkarlanean diseinatu eta landutako prozesua da.Ikuspegi soziala duena, balioak eta balore sozialak sustatzen dituena eta kohesio sozialean eragiten duena. Eusko montetak azken hamarkadan Ipar Euskal Herrian egin duen ibilbidea eta lortutako emaitzak ikusirik, guretzat eredu da eta Oarsoaldeko esperientzia baliatu nahi dugu gerora beste lurraldeetara egokitutako prozesuak zabaltzeko.



**Euskal Herrian Agroekologia** lantzen eta bultzatzen duen baserritar eta herritarren kolektiboa gara EHKOlektiboa. Gure baserrietatik, eta jendartearekin batera, guztiontzako elikadura osasuntsua eta eskuragarria egitea dugu helburu; lurra, abere eta pertsona guztien errespetuan oinarriturik. Agroekologiaren lanketa teoriko, eta batez ere praktikoa, bultzatzen dugu; herrigintzaren ikuspegitik eta elkarlanetik, gure etxaldeak guztion artean Agroekologiaren bidean aurrera joateko. Elkartearen helburuak:

- AGROEKOLOGIA. Kontzeptu zabal hori definitu eta garatu, gure lurraldea eta jendartea kontutan izanik.
- BERME SISTEMA PARTEHARATZAILEA. Identifikazio erreminta garatzea; alde batetik, herritarrek eta laborarien arteko loturak sustatzeko eta, bestaldetik, Agroekologiaren bidean dauden etxaldeak positiboki bereizteko.

ELKARTASUNA. Hainbat lurralderen arteko harremanak sustatu.

# Komunitatea 2024

**EKIHERRI**. Errenteriako Energia Komunitatea

Herritarrez osatutako irabazi asmorik gabeko kooperatiba, herritar guztiei irekia.

- Errenteria erreferentzia izatea energia berriztagarrien garapenean eta, hartara, baliabide fosilekiko mendekotasuna murriztea
- Gure energia-kontsumoa murriztea, eta, aldi berean, gure energia-faktura murriztea.
- Energia burujabetza aldeko apustua egitea, erabakiak geuk hartuz.
- Mugikortasun jasangarriko proiektuak gauzatzea.
- Gizarte-kohesio handiagoa eta bidezko trantsizio energetikoa sustatzea.
- Klima-aldaketaren aurkako borrokan eragile aktiboak izatea.
- Gure bizi-kalitatea hobetzea.
- Gure ekonomia bultzatzea, bertako elikagaiak eta 0 km-ko produktuak sustatuz.



# Komunitatea 2024

**EUdako Euskal Unibertsitatea**

1973an sortutako unibertsitate-erakundea da. Ikastaroak eskaintzen ditu eta unibertsitate-ekitaldiak antolatzen ditu Euskal Herriko Unibertsitatearekin, Mondragon Unibertsitatearekin, Deustuko Unibertsitatearekin, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin, Baionako Paueko eta Pays de l'Adourreko Unibertsitatearekin lankidetzan.
Orobat euskaraz eta unibertsitate mailakoak diren atal hauek sustatzen ditu: ikastaroak, liburu-argitalpenak, Internet-zerbitzuak, kongresuak, profesionalen bilkurak, eta graduondoko-ikasketak.

**KZgunea**

KZgunea IKTeetan trebatzeko zentroen sare publikoa da, Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren mendeko Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritzak gainbegiratutakoa. KZgunearen zentroetan egindako jarduera nagusia teknologia berrietan formakuntza ematera bideratzea da.

# Ekintzak 2024

## Urtarrilak 2024

**Teknologia denontzat: Mugikorrak**

Galduta al zaude mugikorren erabilpenean? Kendu beldurrak galdetzeari!

Lagutza eskatu behar izaten duzu mugikorrean zenbait gauza egiteko? Nola pasa ditzaket datuak mugikor zaharretik berrira? Non daude nire argazkiak? Zer da Hodeia? Nola luzatu nire mugikorraren bizitza? Nola identifikatu iruzurak sms eta mailetan? Nola erabili mugikorra modu seguru batean? Nekatuta hainbeste jakinarazpenekin? Kendu al ditzazket behar ez ditudanak? Zertarako hainbeste baimen APPetan? Nola gorde pasahitzak modu seguru batean?

**Teknologia denontzat: Kudeatu zure pasahitzak mugikorrean eta ordenagailuan**

Gure gailuen segurtasuna bermatzeko pasahitzak ezin bestekoak dira baina, askotan, horiek kudeatzea eta gogoratzea zaila izaten da. Tailer honen bitartez, ordenagailu eta mugikorretan erabilgarria den pasahitzak sortu eta kudeatzeko KeePass tresna ezagutuko dugu.




**Urtarrilak 3 (10:00 – 12:00)**
**Urtarrilak 4 (10:00 – 12:00)**

# Ekintzak 2024

**Otsailak 2024**

**Teknologia denontzat: Argazkien kudeaketa Mugikorretan**

Non daude nire argazkiak? Non gorde ditzaket? Nola hustu nire mugikorra?

Ikasi zure mugikorreko edukiak kudeatzen!



**Otsailak 6 (10:00 – 12:00)**

**Otsailak 13 eta 27 (10:00 – 12:00)**

**Teknologia denontzat: Teknologia zalantzen txokoa**

Zalantzako izaten duzu mugikorrean edo ordenagailuan edozer gauza egiteko?



**Otsailak 2024**

# Ekintzak 2024

## Otsailak 2024

**Teknologia denontzat: Argazkien kudeaketa Mugikorretan**

Non daude nire argazkiak? Non gorde ditzaket? Nola hustu nire mugikorra?

Ikasi zure mugikorreko edukiak kudeatzen!




**Teknologia denontzat: Teknologia zalantzen txokoa**

Zalantzako izaten duzu mugikorrean edo ordenagailuan edozer gauza egiteko?

**Otsailak 6 (10:00 – 12:00)**
**Otsailak 13 eta 27 (10:00 – 12:00)**

# Ekintzak 2024

Martxoak 2024

**Teknologia denontzat: Sare sozialetan informazioa nola bilatu**

Ikasi egunerokoan erabiltzen ditugun sare sozialen erabilera nola egin.






**Martxoak 5 (10:00 – 12:00)**

**Martxoak 12 eta 26 (10:00 – 12:00)**

**Teknologia denontzat: Teknologia zalantzen txokoa**

Zalantzako izaten duzu mugikorrean edo ordenagailuan edozer gauza egiteko?





Martxoak 2024

# Ekintzak 2024

**Martxoak 2024**

**Teknologia denontzat: Teknologia zalantzen txokoa**

Zalantzako izaten duzu mugikorrean edo ordenagailuan edozer gauza egiteko?



**Martxoak 12 eta 26 (10:00 – 12:00)**

**Apirilak 9 (10:00 – 12:00)**

**Teknologia denontzat: Nola babestu zure bizitza digitala? Mugikorrak**

Zein datu jasotzen ditu nire mugikorrak? Nola konfiguratu dezaket? Konezio seguruak nola egin ditzaket?

Ikasi zure mugikorra babesten!



**Apirilak 2024**

# Ekintzak 2024

Apirilak 2024

**Teknologia denontzat: Teknologia zalantzen txokoa**

Zalantzako izaten duzu mugikorrean edo ordenagailuan edozer gauza egiteko?

Etorri eta lagunduko zaitugu!

**Apirilak 16 eta 30 (10:00 – 12:00)**

**Apirilak 26 - Camba Kooperatibaren bisita**

Cambá (Argentina), teknologian eta software eta hardware librearen garapenean aditua den kooperatiba da, eta Errenterian eta TORREKUAn izan ziren apirilaren 26an. Kooperatibako kideek interkooperazio jardunaldi batzuetan parte hartu zuten Talaios Koop eta TEKS Sarearekin batera, ikuspegi pertsonalak eta kolektiboak partekatzeko, teknologia libreen alorreko etorkizuneko ekintzak lantzeko eta sektorean nazioarteko zubiak eraikitzeko.

Apirilak 2024



# Ekintzak 2024

**Maiatzak 2024**

**Teknologia denontzat: Teknologia zalantzen txokoa**

Nola babestu zure bizitza digitala? ordenagailua

Nola babestu ditzaket nire bilaketak? Zein datu jasotzen ditu? Cookieak zer dira? Ikasi zure ordenagailua babesten!

**Maiatzak 7 (10:00 – 12:00)**

**Maiatzak 14 eta 24 (10:00 - 12:00**

**Teknologia denontzat: Teknologia zalantzen txokoa**

Zalantzak izaten dituzun mugikorrean edo ordenagailuan edozer gauza egiteko?

Etorri eta lagunduko zaitugu!

**Maiatzak 2024**

# Ekintzak 2024

## Mahai ingurua: "Euskara eta digitalitatea: begiradak 2024tik"

Bizitzaren digitalizazioak galdera berriak ekarri ditu euskalgintzara, erabileraren auzitik hasi eta adimen artifizialaren hype eta burbuiletara, itzulpenerako aukerak ere tartean direla. Goi mailako Online Ikastegiak (UEU-GOIk) Euskara eta digitalitatea aditu-titulua aurkeztu berri du 2024-2025 ikasturterako, UPV/EHUren berezko eskaintzaren baitan. Online modalitateko graduondoko horrek prestakuntza eskaini nahi die testuinguru digitalean euskara sustatu nahi duten aditu eta arituei, tresna eta baliabide digitalak ezagutarazteko ez ezik, gogoeta pizteko eta euskararen zaintza eta sustapen digitalerako estrategiak lantzeko.

Humanitate Digitalen Ikerketa Gunetik antolatutako mahai-inguru honetan, graduondokoan landuko diren hainbat gairen bueltan arituko gara euskarazko digitalitatean eskarmentu handia duten lau hizlarirekin. Gainera, hitzaldi klasikoen egiturak alde batera utzi, eta parte-hartzaileei kezka bana, itxaropen bana eta galdera bana elkarri proposatzeko eskatuko diegu, euskarak 2024ko panorama digitalean bizi duen egoeraren lau begirada ezberdin jasotzeko eta gaiaren inguruan eztabaidatzeko. Saioa euskararen biziberritzean eta eraldaketa teknologikoan interesa duen edonori zuzenduta dago.

Lorea Arakistain (.eus)
Igor Leturia (Elhuyar)
Eli Pombo (Iametza)
Gorka Julio (Talaios)
Dinamizatzaile: Xabier Landabidea (UEU)




**Maiatzak 2024**

# Ekintzak 2024

## Maiatzak 2024

Kooperativt København bisita

Ikuspegi pertsonalak eta kolektiboak partekatzeko, teknologia libreen alorreko etorkizuneko ekintzak lantzeko eta sektorean nazioarteko zubiak eraikitzeko elkarlana landu genuen. Torrekua ezagutu eta antolaketa eredu desberdinak partekatu genituen.



**Maiatzak 26**

**Ekainak 4 (10:00 - 12:00)**

**Teknologia denontzat: eguneroko tramiteak online (Osakidetza, bizitza laborala, udala)**

Nola ikusi dezaket Osakidetzako karpeta digitala? Nola harremandu udaletxearekin?



## Ekainak 2024

# Ekintzak 2024

## Ekainak 2024

**Teknologia denontzat: Teknologia zalantzen txokoa**

Zalantzak izaten dituzun mugikorrean edo ordenagailuan edozer gauza egiteko?

Etorri eta lagunduko zaitugu!

**Ekaina 11 eta 25 (10:00 – 12:00)**

# Ekintzak 2024

## Ekainak 13 (18:00 – 20:00) – Ertzeko bizitzak eraldatzeko ekintza kooperatiboa

TORREKUAk Kataluniako esperientziak biltzen dituen jardunaldietako bat jaso zuen.

TEKS Elkarteak TORREKUAren ateak ireki zizkion kooperatibismo antiarrazista baten aldeko Kataluniako esperientzien topaketari. KoopFabrikak, OlatuKoopek eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin antolatutako jardunaldiak izan ziren, eta hainbat egunetan egin ziren probintziako hainbat lekutan. Kataluniako proiektu kooperatiboak, Ekonomia Sozial Eraldatzaile antiarrazistarekin lotutako proiektuak eta Kataluniako ESSen esparruan proiektu bat garatu duten pertsona migratzaileen esperientziak partekatu genituen bertan.

TORREKUAren jardunaldian Kataluniako lau ekimenek hartu zuten parte. Aste horretan zehar, Euskal Herriko Ekonomia Sozial Eraldatzaileari lotutako beste espazio edo proiektu batzuk ezagutzeko aukera ere izan zuten. Proiektuak ondokoak izan ziren:

- Migress
- Top Manta
- Abarka
- Més que cures




Ekainak 2024

# Ekintzak 2024

## Ekainak 13 (18:00 – 20:00) – Ertzeko bizitzak eraldatzeko ekintza kooperatiboa

KoopFabrikatik proiektuak garatzeko formazioa eta baliabideak eskaintzen ditugu. Seguraski jakingo duzunez, KoopFabrikaren erronketako bat ekintzailetza sozial kooperatiboan ikuspegi antiarrazista txertatu eta gure tresnak kolektibo arrazializatuetara zabaltzea da.

Norabide horretan, KoopFabrika Hegoaldetik ildoa ireki genuen. Tresna kooperatiboari buruz hausnartu, eta feminista eta arrazakeriaren aurkakoa izango den alternatiba bat lantzeko helburuz, topaketa bira bat antolatu dugu. Bira hau Bartzelonatik datozen proiektuetako pertsonen bisitak probestuz antolatu dugu.

Jardunaldi hauek iazko urrian egin genituen lehenengoen jarraipena dira, Katalunia, Madril eta Sevillako ekintzailetza kooperatiboa Euskal Herrira hurbiltzeko, beste herri batzuekin sareak egiteko eta ikaskuntzak eskuratzeko helburuarekin. Jardunaldiak publiko ororentzat dira, nahiz eta ahalegin handia egiten dugun pertsona migratuak bertaratzeko. Garrantzitsua da migratuen eta ez migratuen arteko eta migratuen arteko lankidetza-aliantzak ehuntzea, ekonomia eraldatzaile, feminista eta arrazakeriaren aurkako ekonomietatik alternatiba integralak sortzeko eta elkartzeko gune gisa.



**Ekaina 2024**

# Ekintzak 2024

## Irailak 2024

Teknologia denontzat: Teknologia zalantzen txokoa

Zalantzak izaten dituzun mugikorrean edo ordenagailuan edozer gauza egiteko?

Etorri eta lagunduko zaitugu!

**Irailak 17 (10:00 - 12:00)**

**Irailak 17 (18:00) – Heptamerona: itzulpen automatikoaren garaian**

Irailaren 17an, "Heptamerona" obra klasikoa euskaratzeko izandako irizpide, baliabide eta erronkei buruzko mahai-ingurua egin zen TORREKUAn, Ines Castiella, Fito Rodriguez, Xabier Olarra eta Itziar Diez de Ultzurrunen eskutik. Moderatzailea, Xabier Landabidea izan zen.

Teknologia Librearen eta Ekonomia Sozial Eraldatzailearen esparruan diharduten enpresa eta kooperatiba sareak antolatu zuten hitzaldia, TEKSek eta UEUk.






**Irailak 2024**

# Ekintzak 2024

## Urriak 18 - 20 - Euskal Game Jam 2

Zomorro Studiok, Game Erauntsia Elkarteak, Torrekua guneak eta Badalab Hizkuntza Berrikuntza Laborategiak Euskal Game Jam 2 topaketa aurkezten dute. Bideojoko sortzaile euskaldunak batzeko zein elkar ezagutzeko, euren abileziak agerian jartzeko eta harremanak sortzeko ekimena izango da.

48 orduko epean bideojoko bat sortzeari ekingo diote euskara hutsean egiten den bigarren Game Jameko parte hartzaileek.

Urriaren 18an 18:00etan hasiko da sormen prozesua; bi egun ondoren, urriaren 20an, proiektuak bukatuta eta itch.io plataforman argitaratuta eduki beharko dituzte.

Online zein aurrez aurrez parte hartzeko aukera egongo da. Oreretako Badalab Hizkuntza Berrikuntza Laborategian egingo da aurrez aurreko ekimena.

Aurkeztutako bideojoko guztiak euskaraz egon beharko dira.




**Urriak 2024**

# Ekintzak 2024

### Urriak - Don Bosco Tailerrak Torrekuan

Don Bosco eta Talaiosek elkarlanean, eremu profesionalera zuzendutako konpetentzia digitalak lantzeko 8 tailer prestatu zituzten. Tailer horietako bakoitzak bi saioko iraupena izan zuen. Don Bosco eta Torrekuako espazioak erabili ziren horiek aurrera eramateko. Lan eremuetan baliogarriak diren digitalizaziorako tresna zein prozesu ezberdinen inguruko ikastaroak izan ziren, titulazio ofiziala eskaintzen zen ikastaroa bukatuta. Ikastaroak bi hilabetez luzatu ziren. Ikastaroak ondokoak izan ziren:

- **Sortu ikastaroak Moodle erabiliz** (urriak 8 eta 10 16:00-20:00)

Moodle irakaskuntza eta ikaskuntzarako erabiltzen den plataforma digitala da. Ikastaro honen bitartez, tresna gertutik ezagutzeaz gain, eskaintzen dituen aukerak aztertuko ziren eta ikastaro bat sortzeko eta kudeatzeko jarraitu beharreko urratsak landu ziren.

- **Sortu zure webgunea Wordpress erabiliz** (urriak 15 eta 17 16:00-20:00)

Webgune bat sortzeko jarraitu beharreko prozesua ezagutu eta horretarako eskuragarri dauden tresnak jakin nahi dituzten pertsonei zuzendutako ikastaroa. Kasu honetan, Wordpress plataforma nola erabili eta eskaintzen dituen aukerak zeintzuk diren landu ziren, webgune bat argitaratzeko pausuak gidari izanik.

- Zure proiektuen kudeaketa egin Odoo erabiliz (urriak 22 eta 23 16:00-20:00)

Erabilera profesionalerako erabiltzen den ERP aukera desberdinak ezagutu nahi dituzten pertsonei zuzendutako ikastaroa. Ikastaro honen bitartez, Odoo lan-antolaketarako softwarea ezagutu eta hori nola funtzionatzen duen landu zen. Modu honetan, lanbide bateko lanak automatizatu eta espazio batean integratzeko tresna ezagutu eta aztertzeko.

**Urriak 2024**



# Ekintzak 2024

## Urriak 2024

- Nextcloud: Google Driven alternatiba librea (urriak 29 eta 31 16:00-20:00)

Hodei zerbitzu alternatiboak ezagutu nahi dituzten pertsonei zuzendutako ikastaroa. Google drivetik haratago doan alternatiba librea ezagutu eta nola funtzionatzen duen ikusi genuen, Nextcloud erabiliz. Plataforma barrutik ikusi eta nola erabili daitekeen aztertuz, bere aukerak landu genituen.




**Don Bosco Tailerrak Torrekuan**

# Ekintzak 2024

## Azaroak - Don Boscao Tailerrak Torrekuan

Don Bosco eta Talaiosek elkarlanean, eremu profesionalera zuzendutako konpetentzia digitalak lantzeko 8 tailer prestatu zituzten. Tailer horietako bakoitzak bi saioko iraupena izan zuen. Don Bosco eta Torrekuako espazioak erabili ziren horiek aurrera eramateko. Lan eremuetan baliogarriak diren digitalizaziorako tresna zein prozesu ezberdinen inguruko ikastaroak izan ziren, titulazio ofiziala eskaintzen zen ikastaroa bukatuta. Ikastaroak bi hilabetez luzatu ziren. Ikastaroak ondokoak izan ziren:

- **Euskarazko baliabide digitalak** (azaroak 5 eta 7 16:00-20:00)

Mundu digitalean euskarazko edukiak eta baliabideak zeintzuk diren ezagutu nahi dituzten pertsonei zuzendutako tailerra. Saioan zehar, formatu desberdinetako edukiak non topa daitezken ikusi eta zein motatako edukiak eskaintzen diren aztertu genuen.

- **Egunerokorako segurtasuna sarean eta mugikorrean** (azaroak 12 eta 14 16:00-20:00)

Gailu digitalaren segurtasunarekin zerikusia duten gaietan interesa dutenei zuzendutako tailerra. Pasahitzak sortu eta kudeatzeko tresnak aurkeztu ziren eta, horrekin batera, gure gailuak iruzurretatik babesteko gomendioak eman, egunerokoan topatu ditzakegun adibideekin.



**Azaroak 2024**

# Ekintzak 2024

**Azaroak - Don Boscao Tailerrak Torrekuan**

- Sistema eragile libreak (azaroak 19 eta 21 16:00-20:00)

Ordenagailu batean sistema eragile libre bat nola instalatu eta martxan jarri daitekeen ezagutu nahi duten pertsonei zuzendutako ikastaroa. Kasu honetan, sistema eragileak zer diren eta gure ordenagailuetan nola eragiten duen ikusi genuen. Horrekin batera, sistema eragileak ordenagailuan instalatzeko urratsak ezagutu genituen.

- Docker eta docker compose (azaroak 26 eta 28 16:00-20:00)

Docker mundua eta bere aplikazioa ezagutu nahi duten pertsonei zuzendutako ikastaroa. Kontainerizazio teknologia ulertu eta trebatzeko baliatu zen. Dockerren bitartez, aplikazioak eraiki, probatu eta zabaldu daitezke, lokalean bertan edo zerbitzari batean.



**Azaroak 2024**

# Ekintzak 2024

**Azaroak 15 (10:30tik – 19:00ra) – Sareak berreskuratu eta berrasmatu**

Azroaren 15ean Errenterian ospatu zen Euskal Herria Digitala osatzen duten eragileek (TEKS Elkartea, TORREKUA eta Badalab) elkarlanean antolatutako jardunaldien 3. edizioa.

Goizean, TORREKUAn, "Autodefentsa digital feminista" tailer praktikoa egon zen DonesTech kolektiboaren eskutik. Tailerrean mehatxu digitalak eta horrek herritarrengan sortzen dituen eraginak identifikatu ahal izan ziren. Tailerrak egoerak edo adibideak planteatzen zituen mehatxu horiek ezagutu eta ikasteko, eta gure egunerokotasunean dituzten ondorioak ulertzeko.

Arratsaldeko saioa (17:00etan) Badalab-en izan zen. Bertan, Simona Levi, digitalizazioan eta sare askeetan aditua, egon zen. Digitalizazio demokratikoaren erronkari eta herritarren ahalduntzea ziurtatzeko tresna digitalak izateko beharrari buruzko hitzaldia eman zuen.




**Azaroak 2024**

# Ekintzak 2024

Azaroak 19

**Tarragonako Ateneu Cooperatiu bisita - Udaletako teknikariak eta proiektu kooperatiboetako zuzendariak**

TORREKUA inauguratu baino egun batzuk lehenago, El Ateneu Cooperatiu del Camp (CoopCamp) barnean ostatatutako proiektuak ezagutzeko aukera izan genuen. Tarragonako hogeita hamar erakunde baino gehiagoren arteko aliantza bat da. Dituzten helburuen artean, Coop Camp-en xedea da kooperatibismoa eta ekonomia sozial eta solidarioa bultzatzea, baita lankidetza sareak indartzea ere.

Aurten, ikastaro bat antolatu dute Tarragonako Diputazioan, udal-teknikarientzat, tokiko administraziotik kooperatibismoa eta ekonomia sozial eta solidarioa sustatzeko asmoz, fokua aliantza publikoan – kooperatibetan – eta komunitarioetan jarriz. Ikastaro honen baitan, Euskal Herrira bisita bat zegoen aurreikusita, hemengo kooperatibismoa sustatzean eta tokiko garapenean lan egiten duten hainbat ekimen ezagutzeko. TORREKUArekin harremanetan jarri ziren hemen egin nahi dugunaren berri izateko eta nolabait TORREKUAren parte ere diren ekimen eta kooperatibak ezagutzeko. Gainera, Errenteriako Udalak ere parte hartu zuen bisitan.



**Azaroak 2024**

# Ekintzak 2024

**Azaroak 21 - Komunikazio libreago baterante trantsizioan**

**E**uskal fedibertsoaren lehenengo topaketa egin genuen iaz Badalaben. Aurten, UEU eta TEKS elkartearekin batera indarrak batu eta jardunaldia antolatu dugu azaroaren 21erako. La jornada se desarrolló por la mañana en TORREKUA y por la tarde hubo sesión en Badalab.

Sareetako komunikazio librean sakontzeko, estrategiak partekatzeko zein bateratzeko eta euskal komunitateak fedibertsoan* izan dezakeen paperaz hitz egiteko elkartuko gara Errenterian. Horretarako zenbait esperientzia inspiragarri ezagutu eta beraiekin gertutik hitz egiteko aukera izango dugu.

Egunean zehar espazio eta formatu desberdinetan gertatuko da ekimena.

10:30-14:00. Kultura libre digitalarekin komunikatzeko tailerra. Rita Barrachina

Ibilbide honetan, kultura libre digitala duten proiektuak nola komunikatu ikasiko dugu, ideia bat izaten denetik zabaltzen den arte. Gaur egungo digitalizazioari buruz hausnartuko dugu, ondasun komun digitalak nola sortu eta lizentziatu ikasiko dugu, eta gure proiektuak inkoherentziarik gabe zabaltzeko neurriak eta bitartekoak ezagutuko ditugu.




**Azaroak 2024**

# Ekintzak 2024

## Azaroak 21 - Komunikazio libreago baterante trantsizioan

**Hitzaldiak. Badalaben.**
**Gidaritza: HDGunea (Xabier Landabidea).**

16:30-17: 00: Sare sozialen metrikak birpentsatzen. Marcel Costa
Sare sozialen erabileraren hazkundearen eta haien interakzioaren monetarizatzearen ondorioz, metrika zehatz batzuk finkatu dira sare horietan duten eragina aztertzeko. Hala ere, metrika horiek oso sinplistak dira, eta askotan ez dute elkarrekintzaren kalitatea islatzen, ezta parte hartzen den komunitatearen izaera ere. Metrika berriak imajinatu behar ditugu, interakzio horiek hobeto baloratzeko eta nahi ditugun giza sareetara jotzeko.

**17:00-17: 30: Hizkuntzaren kudeaketa fedibertsoan, estrategiak, tresnak eta neutraltasun linguistikoa. Rita Barrachina**

Fedibertsoko hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa behin eta berriz errepikatzen den gaia da, eta hainbat modutan jorratu izan da: bizikidetza-akordioak, tresnaren funtzionaltasunak edo zerbitzariko konfigurazioak. Hitz egin dezagun neutraltasunaz, tresnez eta hizkuntza-aniztasunerako estrategiez Fedibertsoan.



**Azaroak 2024**

# Ekintzak 2024

**Azaroak 21 - <u>Komunikazio libreago baterante trantsizioan</u>**

**17:30-18: 00 (Online): Nola transitatu komunikazio askeago baterantz. Shine McShine**

18:00: Twitter osteko komunikazio estrategiak. Marta G. Franco
X-ren azken jitoa da sare sozial komertzialen 'enshitifikazioaren' ebidentziarik argiena, baina ez bakarra. Argi dago ezin garela plataforma pribatiboen mende egon informatzeko, komunikatzeko edo politikoki online antolatzeko, baina egin al dezakegu sare sozial libreetan? Argudioak, taktikak eta tresnak partekatzen ditugu jokaleku horretan aurrera egiteko.




**Azaroak 2024**

# Ekintzak 2024

## Azaroak 22 - Torrekuaren Inaugurazioa

Torrekua espazioaren inaugurazio ofiziala burutu genuen azaraoren22ko ostiralean. Bertan, hainbat jarduera burutu genituen aurkezpenera gonbidatutako eragile, norbanako eta proiektu desberdinei eraikina erakutsi eta proitektuaren nondik norakoak aurkezteko. Burututako ekintzen artean, Torrekuari ahots sintetiko bat ipini genion hitz egin zezan, aurkezpen eta sarrera moduan. Ondoren, gonbidatuek, Torrekua eraikinaren bisita egin zuten, espazio bakoitza ikusteko. Jarraian, Torrekuan egun dauden proiektu eta partaideen arteko mahai-inguru bat burutu genuen, lanean dauden eragileak gertutik ezagutzeko. Hori amaituta, Torrekuaren inguruko jolas bat prestatu genuen eta, bukatzeko, mokadutxoak izan genituen.



**Bideo laburpena**

**Podcast-a**



Azaroak 2024

# Gehiago jakiteko


Etxebeste, Urko. "Torrekua, teknologia librearen eta ekonomia sozial eraldatzailearen gotorlekua." Berria, 22 de noviembre de 2024, https://www.berria.eus/lurraldeak/-gipuzkoa/torrekua-teknologia-librearen-eta-ekonomia-sozial-eraldatzailearen-gotorlekua_2133789_102.html.

"Teknologia libreak eta ekonomia sozial eraldatzaileak Torrekua eraiki dute talaia." Oarsoaldeko Hitza, 22 de noviembre de 2024, https://oarsoaldea.hitza.eus/-2024/11/22/teknologia-libreak-eta-ekonomia-sozial-eraldatzaileak-torrekuan-eraikidute-talaia/.

"Teknologia herritarren eskura jartzeko tailer sorta, berriro." Oarsoaldeko Hitza, 5 de febrero de 2024, https://oarsoaldea.hitza.eus/2024/02/05/teknologia-herritarren-eskura-jartzeko-tailer-sorta-berriro/.

"Digitala bada ere, indarkeria da." Oarsoaldeko Hitza, 22 de noviembre de 2024, https://oarsoaldea.hitza.eus/2024/11/22/digitala-bada-ere-indarkeria-da/.

"Sareetako komunikazioa librean sakontzeko jardunaldia." Oarsoaldeko Hitza, 15 de noviembre de 2024, https://oarsoaldea.hitza.eus/2024/11/15/sareetako-komunikazioa-librean-sakontzeko-jardunaldia/.

"Sareak berreskuratu eta berrasmatu jardunaldia, Torrekua, bihar." Oarsoaldeko Hitza, 14 de noviembre de 2024, https://oarsoaldea.hitza.eus/2024/11/14/sareak berreskuratu-eta-berrasmatu-jardunaldia-torrekuan-bihar/.

"Konpetentzia digitalen gaineko zortzi tailer ondu dituzte Don Boscok eta Talaiosek." Oarsoaldeko Hitza, 26 de septiembre de 2024,https://oarsoaldea.hitza.eus/2024/09/26/konpetentzia-digitalen-gaineko-zortzi-tailer-ondu-dituzte-don-boscok-eta-talaiosek/.

"Teknologia denen eskura jarriko du TEKS elkarteak, berriro." Oarsoaldeko Hitza, 11 de septiembre de 2024, https://oarsoaldea.hitza.eus/2024/09/11/teknologia-denen-eskura-jarriko-du-teks-elkarteak-berriro/.

"Heptamerona euskarara ekartzeko prozesuaz, Torrekua." Oarsoaldeko Hitza, 10 de septiembre de 2024, https://oarsoaldea.hitza.eus/2024/09/10/heptamerona-euskarara-ekartzeko-prozesuaz-torrekuan/.

"Teknologia denontzat ikastaroak, Torrekua." Oarsoaldeko Hitza, 22 de marzo de 2024, https://oarsoaldea.hitza.eus/2024/03/22/teknologia-denontzat-ikastaroak-torrekua/.

Irasuegi, Beñat. "Gerezien denbora: burujabetza digitalarentzat." Argia Astekaria, no. 2861, 28 de febrero de 2024, https://www.argia.eus/argia-astekaria/2861/gerezien-denbora-burujabetza-digitalarentzat.

Coromina, Núria. "Torrekua enceta una nova ruta: primera parada", Etzi, Canòdrom. *Etzi*, 11 d'octubre de 2024, https://etzi.pm/torrekua-enceta-una-nova-ruta-primera-parada-canodrom/

# Torrekua naiz, non nago?

Orereta kalea, 7,
Errenteria - Orereta (21000 - Gipuzkoa)

**Astelehenetik Ostiralera**
**Posta elektronika:** info@torrekua.eus

torrekua.eus
info@torrekua.eus
@Torrrekua@mastodon.eus

teks.eus
info@teks.eus
@Teks@mastodon.eus